

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

ostu	Nire ordenagailua ostu didate!
entzungor	...bidaideen protestei entzungor eginez .
egosi	Urdaiazpiko egosia ez zaidalako gustatzen...
fardel	Denbora fardel artean etzanda eman izan behar dut...
laudorio	Aitaren laudorioek lortu dute pixkanaka mutikoari atsekabea pasatzea.
pot egin	Pot eginda nindoan etxera bueltan uztailearen hasierako gau sargori hartan...
gosekil	...horrelako gosekilen artean hasiak ziren gizonezkoak erreklutatzen...
bolada	...liburu-saltzaileak deitu zidanean ez nengoan boladarik onenean.
lar	Zelan zabilta lan aldetik aspaldi honetan? — Lar ondo ez.
atzaparkada	...bere estiloko atzaparkada pare bat jo zizkidan sorbaldan.
ase ezin	Liburu-banatazaile ase ezinak , ohi bezala, diruaz ez kezkatzeko esan zidan.
aitzur	...berak jarraitu zuen tragoak ordaintzen, eta azkenean aitzur galantaz amaitu genuen biok.
oharkabe	...orduko hartan ere komunera egin zuen bisita bat aprobetxatu behar izan nuen oharkabean ihes egiteko.
arroil	Trenbideen arroila gaineko Kantaloja zubia zeharkatutakoan afrikar batzuk ikusi nituen...
urritasun	...nirea bezalako baxu-ahotsen urritasunari esker, antza, eta kopuru ederrak jaso nituen...
ogibide	...teorian nire ogibide nagusia izan behar zuena: kauri-botatzaile, igarle, azti, arazo-konpontzaile, ikertzaile edo dena delakoa...
azti	...teorian nire ogibide nagusia izan behar zuena: kauri-botatzaile, igarle, azti , arazo-konpontzaile, ikertzaile edo dena delakoa...
mamurtu	Halako ideiak mamurtuz joan nintzen hurbiltzen nire atarira, auzoari izena ematen dion San Frantzisko kale luzean zehar...
ustekabean	...baina han, ustekabean , nire begi erdi itxiak atoa zabaldu ziren...
ozta-ozta	Haren burua ozta-ozta ailegatzen zitzaidan bularrera eta hantxe tinkatu zuen segundo batzuetan.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen: Nota:

mesfidantza	Nire mesfidantza sumatuz edo, gizontxoak beste argudio batekin probatu zuen.
noiz edo noiz	Garanez era arduratu da noiz edo noiz .
itaunka	Edonola, itaunka alferrik ari nintzelako sentiera izan nuen.
ijito	Edonola ere, plazak batik bat ijitoen eremua izaten jarraitzen zuen...
aldameneko	...Kultur Zentroaren alboko arkupeetan, haien emazteak-eta jolasgunearen aldameneko jarlekuetan...
olgatu	...umeak inguruan olgatzen ziren, txikienak parke txikiko tramankuluetan eta kozkorak futboleant...
estaldura	...beti asmatzen zuen aitzakiaren bat hala jokatzeko: estaldura eskasa, sakelakoa ez zebilela ondo...
nagikeria	Hamaikak pasatxo ziren, nagikeriaz jaiki eta osteratxiki baten ondoren...
irriño	Bibliotekariak beste irriño batez amaitu zuen berbaldia eta nik nahasturik so egin nion.
sofistikatu	Zenbait sofistikatuagoa izateko askoz atzerago jo behar nuen...
abegi	...hemen ematen zaien abegi onak ezarrita.
etenik gabe	Kalea kameraz josita dago eta polizien autoak ia etenik gabe egoten dira toki estrategikoan, aparkatuta...
zipriztindu	...istorio hark zenbateraino zipriztindu ahal nuen mamurtuz.
hornitu	— Asmatu egin duzu, eta ondo hornituta etorri da gainera.
traste	...itaundu nuen, nahiz eta atsoak traste harekin larregiko interesik ez.
atsekabe	...esan zidan bat-batean eta, hitz haiek sentiarazi zidaten atsekabea gorabehera...
sikeran	Txemaren erantzunak, ardura bat kentzeaz gainera, izandako azken atsekabeak apurtxo bat, sikeran , leuntzen lagundu zidan.
jenero	Teorian janaria besterik ez zuen saltzen, baina praktikan bestelako jenero asko ere bazeukan...
gonbit egin	...ez nuen ezer erantzun eta keinu batez kale itxian sartzeko gonbit egin zidan.
apeta	...edozein momentuan izorratu ahal ninduten, horretarako apeta izanez gero.

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

ateraldi	Grazia egin zien nire ateraldiak ertzainei eta irribarrez hurbildu zitzaidan beltzaran txikia.
atoan	Atoan damutu nintzen esandakoaz.
sentiberatasun	Bistan zegoen bost axola zitzaizela nire sentiberatasuna mindu ote zuten.
so egin	Berak, ostera, egindakoa astakeriaren batera errudun sentimendurik gabe so egiten zidan.
adats	Ile- adats kizkur eta gorri bizi hura, azal zuri hura, begi handi eta argi haiek...
dekadente	Mozoilo Beltza Gorte kaleko putiklub dekadenten artean dekadenteenetakoa zen...
barealdi	Barealdi txiki bat sentitu nuen nire korukidea begiz jo nuenean...
sinesgogor	...oso-oso dotera jantzitako gainerako gizon-emakumeak sinesgogor edo nahastu aurpegiak ipini zituzten...
algaraka	...barrez hasi zen, bere erara, algaraka zoroen pare espantukoa, primeran pasatzen ari zen...
iseka	Isekaren eta errietaren arteko tonuaz egin zidan galdera...
pamela	...emakumezkoak aldizkarietakoak bezalako soinekoez eta pamelaz ...
lez	..."gogoratu gero ito behar zaitudala" adieraziz lez .
abade	...baten batzuei barregurak eman zien, beste askok abadearen antzeko begiradak zuzendu zizkidaten.
zantzu	...beste organo batzuk zauriz josita, eta bestelako torturaren zantzu ugari ageri omen ziren, ...
feldela utzi	...ez zen bidezkoa pisukideei imajinatzen ez zuten feldela uztea hauts zuriaren kontura...
mairu	Zuk hamasei euro eskaini zenidalako, eta mairu marikoiak hogeita hamar.
debalde	Ez, berrogeian. Eta ilea debalde moztu dit.
halandaze	...handitzea besterik ez zuen ekarriko, halandaze bat-batean moztu eta, agur ere esan gabe, dendariari bizkarra eman eta kalera irten nintzen.
kikarakada	Guztira hiruna kikarada te hartu genituen eta, azkenean, bosteko-estutzea etorri zen.
higuingarri	...eta burutazio higuingarri bat izan nuen.

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen: Nota:

susperraldi	...farmazian lan egiten hasi zenean pikutara joan zen bere bizitzarekin hasitako susperraldia .
atalasera	...aditu nuen Lolesen ahotik ateko atalasera iritsi orduko.
barik	...telebistara barik niri begira eta, halako baten, zera esan zidan...
totelka	...esan nuen, totelka .
sasiamorante	Nire sasiamorante bitxiak txorizo bokata bat ekarri zidan...
zabu	Asko egon dira aldi berean zabu eta txirristetan.
gorpuzkin	...oihu gero eta itoagoak ahoan sartzen zizkieten gorpuzkinen erruz...
uxatu	Lanean ari ziren bitartean begiluzeak uxatzea ez zen arazoa izango halako jendearentzat...
gomuta	...gustuko zituzten antzinako gomuta ustez gogoangarriak...
txahala bota	...baina sartu orduko irten omen ziren hortik, txahala botatzen gorpuaren itxuraren kontura.
zerraldo	...hemendik gutxira urrezko zerraldoa erosteko ez ba da.
ufada	Ondorioa beste ufada ozenago bat izan zen.
laztabina	...belaunikatu nintzen, gogor oratuta zeukan laztabinaren punta aztertzeke asmoz.
irauli	...ustekabeen gurpildun aulkia irauli eta gizona lurrera jausi zen...
jendilaje	Nik ez daukat harremanik jendilaje horrekin, eta detektibe zuri baten ordeztu kontratatzeagatik ere damutzen hasita nago.
espitoso	...era guztietako txikizkako salerosketan aritzen den ijito ñaño espitosoa ...
bistadizoa bota	...San Frantziskoko kalearen goi aldeko lokal susmagarriei bistadizo bat bota ondoren...
amarruzale	...guztiak dira joko horren partaide amarruzaleak ...
kilikadura	Momentu hartan halako kilikadura bat sentitu nuen gorputzean...
purrustada	...ohearen beste aldean etzan zen ahoz gora purrustada txiki bat eginez...

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

patxadaz	Urkiolan afalduko dugu biok patxadaz , eta gero, oraindik agertu ez bazara...
zurrupatu	Enare berriro etzan zen alboz nire aldera eta belarriko lobulua zurrupatu zidan.
jeloskor	...eskerrak batere jeloskorra ez zen...
bulka	...esan nion, aldi berean atzetik bulka egiten niola.
aldarte	...nire hitzek ez zuten batere baretu lehen solairuko biztanle zuriaren aldarte ...
bezpera	... bezperan emakume artean izan nuen arrakasta sinesgaitzak.
txortaldi	Enareekin izandako txortaldi bikoitza...
begitandu	Gezurra modu sinesgarrian bota nuela begitandu zitzaidan.
geldo	...karrajuko pauso geldoak , isilpeko itxaronaldia...
marmar	...eta marmar desatsegin bat bota ondoren, pasabidetik aurrera eraman gintuen...
lantzean behin	...baina beldurrez begiratzen zidan lantzean behin ...
eskupeko	Nahi duzu eskupekoa , bai ala ez? –premiatu ninduen.
kemen	Etxe hartan sartzean gainez egiten zidan kemena joanda zegoen guztiz.
zikoitz	...eta panpina bat izan nintzen sorgin zikoitz haren atzaparretan.
arreta zorroztu	Arreta zorrozten saiatu nintzen, baina beste aldekoak ez zuen ezer esan.
artegatasun	Badakit-berrekin nion, artegatasuna disimulatzeko ahaleginez.
mairu	...bestalde, mairu bat ere ez dela hurreratuko horiekin eztabaidatzera.
txatartegi	Lehenik eta behin ijitoen txatartegia fokatu du...
gogaitu	Zaindaria azken mailako puta horien irudiez gogaitu eta, bizkarra aukiarekin atzealdean ezaririk, atsedean hartu du.
etxebako	... etxebako bat, kartoi batzuen gainean eta garagardo botila huts baten alboan lo egiten zuena.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

arlotte	...beste bi arlotte errumaniarraz eta Txemaz arduratu ziren.
begiz jo	Barealdi txiki bat sentitu nuen nire korukidea begiz jo nuenean...
espantuka	...barrez hasi zen, bere erara, algaraka zoroen pare, espantuka , primeran pasatzen ari zen...
zipildu	Izan ere, zezensuzkoaren tramankulu zipildua kendu bezain laster, arnasari buelta emateko astirik gabe, bere estiloko atzaparkada pare bat jo zizkidan...
arnasari buelta eman	Izan ere, zezensuzkoaren tramankulu zipildua kendu bezain laster, arnasari buelta emateko astirik gabe, bere estiloko atzaparkada pare bat jo zizkidan...
gorabehera	...esan zidan bat-batean eta, hitz haiek sentiarazi zidaten atsekabea gorabehera...
kauri	...teorian nire ogibide nagusia izan behar zuena: kauri-botatzaile, igarle, azti , arazo-konpontzaile, ikertzaile edo dena delakoa...
dena delakoa	...teorian nire ogibide nagusia izan behar zuena: kauri-botatzaile, igarle, azti, arazo-konpontzaile, ikertzaile edo dena delakoa ...
premiatu	Nahi duzu eskupekoa, bai ala ez? – premiatu ninduen.
ñaño	...era guztietako txikizkako salerosketan aritzen den ijito ñaño espitosa...
txikizkako	...era guztietako txikizkako salerosketan aritzen den ijito ñaño espitosa...
karraju	... karrajuko pauso geldoak, isilpeko itxaronaldia...
iltzatu	Adore guztia ipini nuen nire helburua lortzarren, baina idiak beherantz egiten zuen bultza, laztabinaren punta lurrean iltzatuz...
damutu	Nik ez daukat harremanik jendilaje horrekin, eta detektibe zuri baten ordeztu kontratatzeagatik ere damutzen hasita nago.
bosteko estutze	Guztira hiruna kikarada te hartu genituen eta, azkenean, bosteko-estutzea etorri zen.
marikoi	Zuk hamasei euro eskaini zenidalako, eta mairu marikoiak hogeita hamar.
sumatu	Nire mesfidantza sumatuz edo, gizontxoak beste argudio batekin probatu zuen.
sentiera	Edonola, itaunka alferrik ari nintzelako sentiera izan nuen.
ume kozkor	...umeak inguruan olgatzten ziren, txikienak parke txikiko tramankuluetan eta kozkorrak futboleant...
otu	Cisseren buruan sartzen saiatu nintzen eta ideia bat otu zitzaidan...